

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**133/2021 Foru Agindua, maiatzaren 19koa. Behin betiko onestea, zenbait baldintzekin, Samaiegoko udalerriko hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espediente, hiri lurzoru industrialari buruzkoa**

Samaiegoko Udalak, 2020ko abenduaren 18ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onestena ematea plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, hiri lurzoru industrialari buruzkoari, eta espediente hori jendaurrean jartzea hogeitun egun baliodunez. Azken hori ALHAOn (2 zk., 2021eko urtarrilaren 8koa), Diario de Noticias de Alava egunkarian (2020ko abenduaren 23an) iragarkiari argitaratuz egin zen.

Jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, 2021eko apirilaren 22ko bilkuran, behin-behineko onestena eman zitzaion espedienteari.

Samaiegoko Udalak espediente bidali zuen aldundiak behin betiko onetsi zezan (aldundiaren erregistroko sarrera data: 2021eko apirilaren 22a).

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 82/2021 Foru Aginduaren bidez, zeina 2021eko irailaren 26ko ALHAOn (45. zk.) argitaratu baitzen, aldeko irizpena eman zitzaion ingurumen txosten estrategikoari, zenbait baldintzarekin, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Udalak sustatutako espediente honen helburua hiri lurzoru industrialaren antolamendu xehatua aldatzea da. Zehazki, eremuko toki bideak osatzea proposatzen da, errealitatera egokituz eta herriko bide bilbeari jarraipena emanez, baita lurzatiaren gehieneko okupazioaren parametroa aldatzea ere, Arabako Foru Aldundiaren plangintza normalizatzeke sistemara (NORPLAN) egokituz.

Bigarrena. Dokumentu teknikoak indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa justifikatzen du, aldaketaren xede den eremuan zegoen eta sute batek suntsitu zuen beste eraikin baten ordez eraikin industrial bat eraikitzea ahalbidetu behar delako, eremuaren antolamendu xehatua osatuz eta udalerraren eskarrietara eta errealitatera egokituz.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 82/2021 Foru Aginduaren bidez emandako ingurumen txosten estrategikoan (2018ko apirilaren 26ko ALHAO, 118. zk.), zenbait alderdi ezarri ziren eta haiek egokiro jaso dira hirigintza dokumentuan.

Laugarrena. Agiria aztertu ondoren, uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren komenigarritasuna eta egokitasuna. Hala ere, aldatu edota zuzendu beharreko hainbat gauza ikusi dira; hona:

1. II. eranskinean jasotako hirigintza fitxa aldatuan, "Baimendutako erabilera xehatuak" atalean bizitegi erabilerari buruzko aipamena kentzea, indarrean dagoen hirigintza fitxarekin bat ez datorrelako, ez baita aldaketaren xede.

2. Plangintzako Arau Subsidiarioetako "hiri lurzoruaren erabilerak" planoaren sartzea, bai indarrean dagoen bertsioan bai aldatutakoan, aldaketaren eragina izango baitu.

3. Memoriaren 12. irudiaren antolamendu adierazgarriari dagokionez, proposatutako araudian ezarritako parametroekin bat etorri behar du. Zehazki, aurreko mugarainoko distantzia bete behar du puntu guztietan.

4. Dokumentu teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazio guztia txosten honetan ezartzen diren baldintzekin zuzenduta eta osatuta aurkeztuko da, \*.pdf fitxategietan eta fitxategi editagarrietan; zehazki esateko, planoak \*.dwg luzapenarekin –kasuan kasuko plumilladun \*.ctb fitxategia gehituz– edo \*.shape luzapeneko fitxategietan, eta testua, berriz, \*.doc edo \*.docx luzapeneko fitxategian.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Samaniegoko Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, hiri lurzoru industrialari buruzkoa, ebazpen honen laugarren oinarrian adierazitako baldintzekin.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 19a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**